

BILBOKO «GAZTEDI» DANT2A TALDEAK BERROGEIURTE BETE DITU



Berrogei urte igaro dira, bai, «GAZTEDI» sortu zenetik hona. Urte guzti horien ibilerak labur biltzen dituen liburu bat kaleratu dugula eta hainbat lekutatik luzatu zaigu eskaera beraren laburpentxo bat egin dezagun, zenbait aldizkaritan argitara emana izateko.

Besteri zergatik interesa dakioken gure historia galdegin diogu geure buruari. Esan dezagun geuretzat bi arrazoitan datzala interes hura. Batetik, erretrospekzioak darakarzkien melankolia gozoa eta atsegin hutsa zentitu nahi izan ditugu; eta, bestetik, gure historian so egitea gogoeta bat egiteko gonbidapena da. Iraganaren kontenplazioaren gozamena nekez baliatuko zaio oroiturikoaren protagonista izan ez denari, baina gogoetarako gonbidapena endosatu egin ahal dizuegu zuoi, eta halaxe nahi ere.

Anitz gara Euskal Herrian ari garen dantza taldeak, gutariko asko ere urte luzeetako iarduna dugularik. Gaurkoan zutunik jarrita, zein dugu gure aurrerako egitekoa?

Susmoa baino gehiago dugu denborak gu baino azkarrago doazela, eta ez halabeharrez, zeren bolada luze batetan askok eta askok bizirik irautea izan bait dugu kasik kezka bakarra. Bat gatoz, materia honetan aginpide handikoa den pertsona batek arestian egunkari batetan esandakoekin, alegia, dantza taldeak «deskontzertaturik» bizi garela.



Maiz gogoerazten da euskaldunak «gizaki dantzari» gisa sarritan definituak izan garela. Ez dugu uste gehiegi tronpatuko garenik esaten baldin badugu gure mugetan gaindi zein barna, euskal dantzarekiko dagokeen begirunea iraganean dagoela gehien bat ezarririk. Esan nahi dugu gure dantza gaur egun, agian inoiz baino gehiago, «plazara» -Mosen Bernatek adierazpen horri damaion zentzu ezin zabalagoan- jalgi beharrean dagoela, gure irudiko.


Ez ote da garaia euskal dantzan zerbait gerta dadin? Baiezko ihardespena behar delakoan gaude, eta honek dantzarien

kolektiboarentzako, zein gizartearentzako erronka bat dela uste dugu; erronka bat eta iraganarekin dugun zor bat ere. Gorago aipatu Etxeparek eman diezagula giltza «GAZTEDI»ren historiaren atea zabalduz, historia hura eta «GAZTEDI» bera baino urrutiago joateko: «debile principium melior fortuna sequatur».

«GAZTEDI»ren jalotza eta hasierako pausuak

Begonako karmeloko Elizaren inguruan eta «DINDIRRI» taidearen laguntza teknikoaz baliatuz sortu zen «GAZTEDI». Aita Txanton Goiria karmeldarra zelarik ekimen haren erantzule nagusia. Taidearen lehenbiziko ekitaldi publikoa Zornotzan izan zen 1951.eko irailaren 26an, nahiz egun hartan «Grupo de Danzas Vascas de la Juventud del Carmelo y Praga de Begona» izen ponpoxoarekin azaldu.

Taldea itxura hartzen joan ahala, bere ezaugarriak hasiko ziren sortzen. 1953- urtean «TALDE GAZTE» izena ezarri zitzaion (ikusten denez, Karmeloko Gazteriarekin zeukan lotura bertan isladatuz), bai eta gure gaur egungo himnoa sortu ere.



Aginte frankistaren esijentzietatik kanpo maiz ibiltzeak (baimenik gabeko ekitaldiak, etab.) hamaika gorabehera erakarriko zion Taldeari, harik eta 1955 urtearen hastapenetan, aita Txantonek Karmeloko Gazteriaren estatutuak legeztatzea lortu zuen arte. Dantza talde baterako eta beste zenbait jardueretarako babesa estatutu haietan aurkitzearekin batera. «GAZTEDI» hasi ginen deitzen.

Etengabeko lan sakona hasita zegoen ordurako. «DINDIRRI»tik etorria zenTxomin Unzaluk gure taldearen zuzendaritza teknikoa 1954.ean bere gain hartu zuenetik ez zen denbora luzean atsedetik izango dantzak eta doinuak ikasteko, jantziak egiteko eta prestakuntza fisikorako zereginetan.

Erronka handiari egin zion aurre gure «GAZTEDI»k, orduko dantza ezagunenak azaltzearekin konformatu ezinean, askozaz ezkutuago ziren beste askoren ikasteari ekin bait zitzaion. Esan beharrik ez dago garai hartako baliabideak zinez eskasak zirela. Garraiobide propiorik gabe Euskal Herriko hainbat puntutara joan behar izaten zen dantzak «begiz» eta melodiak «belarritz» ikastera. «DUGUNA» izenaz ezaguna zen Irufieko Udal Taldeari so eginez, eta talde bereko kide batzuren laguntzaz ikasi ziren, esaterako, Luzaide, Lesaka eta Otsagiko dantzak, bai eta «Larrain Dantza» ere, guztiak oso goiz «GAZTEDI»ren errepertorioan sartu ahal izan zirelarik. Era berean, Iparraldean egiten hasi ziren ekitaldietan profitatzen zen hango dantza asko, betiere begiz, ikasteko.

Honela, sakrifizio ta ekimen handiaz, Taldea, maila on bat lorturik, itxura ederreko ikuskizunak ematen hasi zen, zeinetan lan koreografiko propioak ere sartzen bait ziren askotan.

Ospe garala

Hirurogeiko hamarkada, lehenagoko urte batzu gehituz eta hamarkadaren azkenak kenduz, izan daiteke «GAZTEDI»ren sasoi dizdiratsua, nolabait esateko. Izan ere, urte haietan izan zituenTaldeak maila artistiko gorena eta oihartzun edo begiramen handiena.



Euskal Herriko bazter guztietako plazetan dantzatzeaz gainera, garrantzi handikoak ziren antzokietan ematen ziren ekitaldiak. Taldeak berak antolatzen zituen, karteldegietan beste ikuskizunekin lehian jarritz, gehienetan arrakasta handiak lortzen zirelarik. 1960 urteaz geroztik «Eusko Ederti» deituak izanzen ziren espektakulu hauek eta gehienetan Arriaga antzokian izaten ziren, Guztien artean agian azpimarratu beharrekoa da 1964 urtean egin zena besteak beste bertan aurkeztu zelako «GAZTEDI»k berreskuratu zuen dantza galdu bat: Oriako «Sorgin Dahtza».

Aldiberean Euskal Herriko mugetan gaindi ibilera frango egingo zituen Taldeak, nolabaiteko proiektio internazionala erdietsiaz. Aipagarriak dira, batez ere, 1963- urtean Normandiatik eginiko jira. Handik urtebetera Parisen emaniko ekitaldiak, eta 1965.ean Oviedoko VII. Nazioarteko Folklorjaialdian izan genuen esku hartzea.

Garai hartakoak dira ere gaur egun hain arrotz egiten zaizkigun dantza txapelketak, hauetariko ospetsuenak Erandion ta Deustuan egite zirelarik. «GAZTEDI»k txapeldun titulua eskuratu

zuen aurkeztutako aldi guzti guztietan (bost urtez Erandion eta bi urtez Deustuan).

Baina, ospea ta guzti, lana ez zen eteten, eta esate baterako «GAZTEDI»ko dantzari askok landatuko zituen haziak beste dantza talde batzu sortzeko. Hala sortu ziren hasiera batetan Basauriko «INDARTSU», Galdakaoko «ANDRA MARI», Bilboko «DANOK ALAI», eta beranduxeago Eubako «LAGUNDI», Bilboko «URDURI», Zornotzako «UDABARRI», edo Bilboko «GORANTZA», besteak beste. Dantza kontutik aparte, beste kultur arlotan ere jardun zuen orduko «GAZTEDI»k adibidez, Santutxuko Euskal Eskolaren sorreran, 1964. urtean.

Hirarogeitamarreko haoiarkada

Hirurogeiko hamarkadaren amaieran edukiko zuen hasiera gure lehenbiziko krisialdiak. Jende gazterik ez zen azaltzen, eta Taldea ahulduz joan zen. Ulertu behar da tenore haietan mugimendu sozialak pil-pilean zeudela (lehenbiziko «salbuespen egoerak», E.T.A.ren ekintza armatuen hasiera. etab.) Momentu zailak, dudarik gabe, gurea bezalako erakundeentzat. Sasoi latzak zirelako adierazle batizan daiteke 1970. urtean «GAZTEDI» eta «GORANTZA» taldeek bat egitea erabaki behar izanak. Bat egite horrek, seguru asko, posibilitatu zuen duintasun handiko jarraipen bat, nahiz luza gabe ezkontza harek porrot egin eta talde bakoitzak bere aldetik jarraitu behar izan.

Bultzadatxo bat ezagutuko genuen handik aurrera, berriz ere dantza berriak ikasiz, programa hobetuz, eta Taldearen barne giroa berpiztuz.

Baina erreforma politikoaren hasierako urteak izango ziren bai «GAZTEDI» ta bai beste dantza talde askori nola edo halako arnasa eman ziotenak, askotan uste izaten denaren kontra. Bai halaxe, 1975.etatik 1978.era bitarteko urteak benetan onak ziren guretzat, zeren eta dantzariak ikurrifia bezenbateko elementu omnipresenteak bait ziren Herriaren autoafirmazioaren sinbolo

gisan. Kontaezinak dira orduan emaniko dantzaldiak, baldin eta kontuan hartzen bada herri festaren berreskuratzea urte haietan ere jaso zela.

Hala ere, behi argalen garai bateko mezulari izango ziren orduko tenore haiek, laurogeiko hamarkada hasi baino lehenik bigarren krisialdi baten hastapenak ikusten hasi zirelako. Eta bigarren hau benetan gogorra izango zen laster ikusiko dugun moduan.



Bigarren krisialdiaren ondotik berptzkundea

1980. urtetik aurrera ez ziren makalak askoren ahaleginak Taldea maila on batean jartzeko. Eta bai lortu ere, baina ekitaldiek ez zuten atean jotzen eta jendea desanimatuz joan zen pixkanaka-pixkanaka. Egiazki, dantzariak ez zuten jadanik urte batzu lehenagoko begiramen soziala.

Nolanahi ere, aurrera egitea lortzen zen ozta-ozta, eta arlo batzutan inoiz baino aktibitate gehiago izango genuen, hala nola rrusikari dagokionez. 1981.etik 1983.era trikitrixa, alboka,

Nafarroako gaita, Bizkaiko dultzaina, txalaparta eta beste tresna batzu sartu ziren «GAZTEDI»n, gure musikari taldea oso ezagun eta txalotua egin zelarik.

Krisialdia, ordea, ateangeneukan. Dantzariak apurka-apurka Taldea utzi, harik eta 1985. urtean mutilik gabe gelditu arte. Sekula ez da nahikoa izango orduko nesken taldeak zuen merituen errekonozimendua. Haiei esker, eta gaztetxoekin ari zirenei ere, «GAZTEDI»ren bizitza ez zen behin betiko etengo.

1987.ean hasi ziren ikusten berpizkundearen lehenengo seinaleak. Mutil gazteen talde berri bat ekiten zitzaion berriz lanera, nesketan belaunaldien erreleboa ondo finkaturik gertatzen zen une berean.

Hemendik aurrera, astiro baina irmotasunez. Taldeak berreskuratu zituen kalea eta eskenatokiak, berriro ere ekitaldi publikoetan, gero ta maizagotahobeto, azaltzeko, «GAZTEDI»ren kimu berria loratzen ikusteak erakarri zuen garai bateko taldekide beterano askoren hurbiltzea, eta belaunaldien arteko topaketa hau izango zen behi betiko berpizkundearen giltzarrietako bat. Zaharrak eta gazteak elkarlanean aritu izan dira gaurko egunetara arte, zeinetan ikusten ari garen denbora berriek ekarriko dituzten erronkei aurre egiteko gai izango den «GAZTEDI» berri bat. Hala bedi!

Mundu orotan legea dena
berdin ere gure etxean
denborak martxa aurrerantza du,
ezin gelditu atzean.
Nola, orduan, harri gintezke
gaurkoan konturatzean
zintzarri batzu egon direla
berrogei urtez hotsean?

Beti bizirik izan ditugu
jardun batetan atal bi:
soinu ta dantza, biak azalduz
ekitaldiz ekitaldi.
Halaxe orain elkartzen dira
lau edo bost belaunaldi,
Aita Txantonen asmo zahar hura
gaur plazara dadin jalgi.

Berrogei urte gogoratzeko
nahikoa bitez aste bi!
Baina Taldeko abarka zaharrak
ez dira horman eskegi.
Gaurko dantzari, segi egiozu
lehenagoko hainbesteri,
beste berrogei urte luzetan
bizi dakigun «GAZTEDI»

J. Erize

GA2TEDI

Agur, guztioi
agur bihotzez
agur t'erdi
jaun andreak
Karmelotik gaur
Karmelotik gaur etorri gara
Gaztediko dantzariak.

Zuek guztiok
dantza ta soinu
nahi zaituegu alaitu
aldi bateko dantza garbiak
zuen aurrean dantzatu.

(A. Txanton Goiria)